

Prentsa-oharra

Goratuk eta IK4-TEKNIKERek goi-mailako tornu bertikalen lerro berri bat merkaturatu dute

- ▶ *Produktu berriak, Geminis VL izenekoak, aeronautikan eta energiaren sektorean ditu aplikazioak, besteak beste*
- ▶ *Munduko makina-erremintaren azoka nagusian, EMOn, aurkeztuko da, Milanen*
- ▶ *Geminis VLk Goraturen eta IK4-TEKNIKERen bermea du. Goratu bazkide industrialak du, eta IK4-TEKNIKER, kide teknologikoa*

(Eibarren, 2015eko irailaren 15an).- Makina-erremintaren fabrikatzaile Goratuk eta IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak indarrak batu dituzte produktu-lerro berri bat merkaturatzeko. Goi-mailako tornu bertikalen produktu-lerroa da —Geminis VL du izen komertziala—, eta aplikazio ugari ditu hainbat sektore estrategikotan, nazioartean; esaterako, hauetan: aeronautika, gas&oil eta energiaren sektorea.

Produktu berriak teknologia-maila handia du, eta Arroako (Gipuzkoa) punta-puntako instalazioetan fabrikatuko da. Urrian aurkeztuko da ofizialki EMOk 01 pabilioiko B22-C27 standean, Milanen, makina-erremintaren sektoreko munduko azoka nagusian.

Goratuk eta IK4-TEKNIKERek duela zenbait urtetatik lankidetzan dihardute GMTK enpresa-proiektuari lotuta, eta lankidetzaren fruitua da Geminis VL. GMTK enpresak zailtasunak izan ditu bere marka merkaturatu sartzeko, eta, orain, berriro merkaturatu nahi du bere bezeroen artean arrakasta handiena izan duen produktuarekin.

Prozesu anitzeko tornu bertikalak dira. Produktu berritzailea eta pertsonalizatua da, prozesuen ingeniartzeko azken aurrerapenak dituena, ekoizpena handitzeko. GMTK-k dagoeneko

instalatu ditu horrelako ekipiak. Esaterako, ITPn, motor aeronautikoen EAEko multinazionalean, eta oso balorazio positiboa egin dute.

Punta-puntako produktua

Geminis VL produktuaren oinarrian mekanikazio-prozesuen eta zenbait materialen ebaketa-baldintza optimoen esperientzia eta ezagutza handia daude. Aplikazioen ingeniartzako *know-how* hori zurruna eta aldi berean dinamikoa den makinaren konfigurazio batean aplikatu da, non ardatz bakoitza gai den eragintzak eskaintzeko abiatzeko gaitasun handi batekin eta dinamika handi batekin (40 m/min-rainoko abiadura 3,5 m/s-rainoko azelerazioarekin). Dinamikaren eta indarraren artean oreka aurkituz, ekoizpen-hobekuntza handiak lortzen dira, aukera ematen baitu prozesu eta material bakoitzaren ebaketa-baldintzetara egokituta lan egiteko.

Horrez gain, asko murrizten dira hutseko mugimenduen denborak (erreminta- eta osagarri-aldaketak, neurketak, etab.), eta horrek hainbat eta garrantzi handiagoa du mekanizazio-prozesua konplexuagoa eta balio erantsi handiagokoa den neurrian. Egituraren zurruntasunak, gidaketa hidrostatiako optimizatuek eta egonkortasun termikoaren kontrolak doitasun eta fidagarritasun bikainak bermatzen dituzte, mekanizazio konplexuei eta balio erantsi handikoei ekiteko.

Proiektu sendo bat

Produktu hori, beraz, GMTKren etapa berriaren giltzarria izango da, eta IK4-TEKNIKERen eta Goraturen bermea izango du; kide teknologikoa, lehena, eta bazkide industrial, bigarrena. Makina-erremintako enpresak bere banaketa-sare zabalaren bidez banatuko du Geminis VL. Hala, eskaintza osoago bat izango du: tornu horizontalak (Geminis) eta tornu bertikalak (Geminis VL) eskainiko ditu.

Zentro teknologikoak GMTKren alde egin duen apustua, berriz, bere transferentzia-lerroan sartzen da, non bere bezeroetako batzuekin lankidetzan diharduen spin-offak merkaturatzeko. Nazioartean lehiakorak eta balio erantsi handikoak diren produktuak merkaturatzea da helburua.

Goratuko zuzendari gerente Ainhoa Rementeriaeren hitzetan, Geminis VL tornu bertikalak osagarri ezin hobeak dira gure enpresaren produktu-zorrorako, eskaintza integrala aurkezten” eta adierazi zuen, "uste dut etapa berri honen bidez, berriro merkaturatu ahalko dela

merkatuan balio bereizgarri bat ematen duen proiektu sendo hau", adierazi zuen.

Alex Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak, berriz, enpresaren eta zentro teknologikoaren arteko lankidetzaren balioetsi zuen: "Indarra elkartzarekin dago, eta kasu honetan, proiektu berri honek enpresa-ibilbide fidagarri bat eta makina-erremintaren sektorean eta teknologia merkatura transferitzean espezializatutako kide teknologiko bat elkartzen ditu".

Goraturik buruz

Goratu Machine Tools Manufacturer enpresak 60 urte baino gehiago daramatza makina-erremintako ekipoak fabrikatzen, eta, gaur egun, espezializazio handiko teknologientzako konponbide pertsonalizatuak eskaintzen ditu. Torneaketa- eta fresaketa-teknologietan espezialista da enpresa, bere fakturazioaren % 5 baino gehiago bideratzen du I+G+Bra, eta ekoizpenaren % 90 baino gehiago esportatzen du. Horretarako, filialak ditu Alemanian, Erresuma Batuan, Italian, Errusian, Indian eta Txinan, eta merkataritza-sare zabal bat.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, IKTak eta produktu-ingeniaritza). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia zenbait sektore industrialen zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728

////////////////////////////////////